

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3825

EBAZPENA, 2015eko irailaren 2koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerentzat 2015. urtean emandako diru-laguntzen berri ematen duena.

2015eko ekainaren 18an argitaratu zen EHAAn 2015eko ekainaren 17ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerak 2015. urtean garatzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duena.

2015eko ekainaren 17ko Aginduaren 13.1 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onuradun gertatzen direnei esleipen-ebazpenaren banakako jakinarazpena egitea eragotzi gabe.

Horiek horrela izanda,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko ekainaren 17ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak ere argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 2a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2015eko irailaren 9a, asteazkena

ERANSKINA

Antzerkiko profesionalen prestakuntza integrala lortzera zuzendutako ikastaroak antolatzen dituzten egitarauentzako diru-laguntza eman zaienen zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Algis Arlauskas Pinedo	Anima eskola	4.000
Asoc taller de Artes Escenicas	TAE Donostia	14.500
Pedagogía del arte S.L.L.	Artebi	3.000
Porpol S.Coop.	TAE Vitoria - Gasteiz	25.000
Teatrako teatro	Bai, Bizkaiko Antzerki Ikastegia	14.000
Utopian (koop. Elk. Txikia)	Getxoko Antzerki Eskola	22.500

Antzerkiko profesionalen prestakuntzarekin lotutako arlo zehatzetako prestakuntza-jarduerentzako diru-laguntza eman zaienen zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Asoc Stock Umorea cultural	Bufoia	1.000
Unima-Euskal Herria	Txotxongilo-antzerkia	4.000